



BALIO PROPOSAMENA

Webgune honek, dagokion aplikazioarekin batera, hainbat arlotan mesede egin diezaieke erabiltzaileei. Gizarte honetan ezinbestekoa da sexualitatea ezagutzea, gizakiak beste pertsona batzuekin sozialki, afektiboki eta sexualki lotzeko duen beharrari erantzuten baitio. Sexualitate osasungarria eta arduraz garatua izateak zorientasun-egoera eta ongizate fisikoa, emozionala, soziala eta mentala sortzen du. Beraz, **sexu-esperientzia seguruak** eta **horiei buruzko informazioa** izateak onura handiak dakarzkie edozein pertsonari.



Sexualitateak pertsonen **nortasuna erabat garatzen** laguntzen du, eta haien zorientasun pertsonalean ere eragina izan ahal du. Tabua izaten jarraitzen du, baina webgune honek, pertsonari (bereziki haurrei eta gazteei) informazio egokia eskuratzeko aukera handiagoa emango die.

"Bubble"-k gazteen **autoestimaren garapena sendotzen** lagun dezake, beraien arazo berak dituzten beste pertsona batzuk existitzen direla jakinda. Ildo horri jarraituz, horrek mesede handia egin diezaioke egungo gazteen osasun mentalari.

Bestalde, sexu-hezkuntza izateak sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko **diskriminazioa arintzen** ere laguntzen du. Harreman afektibo edo sexual desberdinak daudela erakustek eta ikusarazteak, hauek normalizatzen eta haien aurrean toleranteagoa izaten laguntzen du. Horrela, webgune honek egungo gizartean dagoen aniztasuna ulertzen eta onartzen laguntzeko gaitasuna dauka.

Sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko baliabideak eskaintzea ere balio-proposamen handia izan daiteke. Oso garrantzitsua da gazteak kontzientziaztea harreman sexual ez-seguruak ekar ditzakeen arriskuez. "Bubble"-k gaiari buruzko doako informazioa eskainiko die, sexu-erantzukizun arduraduneko kultura sustatuz.

Azkenik, aurreko puntuaren hariari jarraiki, aplikazio honek **nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzen** ere lagunduko du. Era guztietako antisorgailuei buruzko informazioa emanaz eta haratago irits daitezkeen arazoak saihestuz.